

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Hizkuntza Gaitasunak
MODALITATEA:	Online
HIZKUNTZA:	Ingelesa

LOWER INTERMEDIATE

KODEA

2015-23-2-5/6

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA	100 ordu	IKASTARORA SARBIDEA	http://ivap.english-e-learning.com			
HARTZAILEAK	Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetako enplegatu publikoak					
EDUKIAK	Ikastaroak egokitasun zenbatetsia du edukietan hizkuntzen Europako Erreferentzia-Esparru Bateratuan ezarritako mailekin. Esparru horren, hain zuzen ere, hizkuntzen irakaskuntzaren curriculumeko 2.Oinarrizko mailarekin (A2).					
MAILAKETA PROBA	<p>http://scorm.abaenglish.com/level-test/ivap-829-en.html</p> <p>Proba amaitu gabe saioa ixten badugu, hasieratik ekin beharko diogo berriz dagokigun maila jakiteko.</p>					
BALDINTZAK	<p>-Helbide elektronikoa bakarria ikasle bakoitzeko (EAEko Admin. Orokorra eta haren EEAAk):</p> <p>-korporazio-saretik kanpodo posta-zerbitzarietatik eta zerbitzarietara mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duen posta elektronikoko kontua izatea. Ez dute balioko mezuak korporazio-sarearen barruan bidali eta jasotzeko aukera besterik ematen ez dutenak.</p> <p>-Lanpostuak ezarrita duen euskara hizkuntza eskakizun maila egiaztatuta izatea.</p>					
BALDINTZA TEKNIKOAK	<p>SOFTWAREA:</p> <ul style="list-style-type: none"> Windows XP edo berriagoa, eta Interneterako konexioa Nabigatzaileak: Internet Explorer 8, Mozilla Firefox 14.0.1 (edo berriagoa) eta Chrome Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua) Adobe Flash Player 10 edo berriagoa <p>HARDWAREA:</p> <ul style="list-style-type: none"> PC Pentium III edo berriagoa Soinu-txartela Entzungailuak mikrofonoarekin (gomendatuak) edo mikrofonoa eta bozgorailu independenteak 					
TUTORETZA	<p>Ikastaroan tutoreek hurrengo lanak egingo dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Mezu bat bidaliko dio ikasleari ikastaroari ongi etorria emateko plataformaren bitartez. ➤ Kontsultak jaso eta argitu: <ul style="list-style-type: none"> • Ikastaroaren EDUKIArekin zerikusia dutenak, posta elektronikoaren bidez • erantzuna 24 orduetan emango dute ➤ Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluaketa egin 					
HILEA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIOAK	BAJAK (ez da matrikula kobratuko)
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	OE	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
OTSAILA	Otsailak 2	Ekainak 12	Urtarrilak 16	urtarrilak 19tik 21era	Urtarrilak 21	Otsailak 2tik 5era
UZTAILA	Uztailak 13	Abenduak 15	Ekainak 5	Ekainak 8tik 12ra	Ekainak 12	Uztailak 13tik 16ra

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Hizkuntza Gaitasunak
MODALITATEA:	Online
HIZKUNTZA:	Ingelesa

LOWER INTERMEDIATE

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK

Ikasleari beharrezko ezagutzak ematea, hizkuntzaren oinarriko egiturak menderatzeko eta esaldi errazen bidez komunikatzeko. Halaber, norberaren ikaskuntza eta hizkuntzaren erabilera ebaluatzeko eta hobetzeko tresnak erabiltzea.

BERARIAZKO HELBURUAK

Aditz-denborei buruzko ezagutza sakontzea, baita erabiltzeko gaitasuna ere; entzunezko ulermena garatzea, ikasleak ezagutzen dituen elkarrizketetan; doinu desberdinak dituzten hitzunik ulertzea, hizkuntzaren ahoskera estandarretik gertu daudenak; testu idatzietatik informazio garrantzitsua ateratzea.

GAITASUNAK

Prestakuntza ekintza amaitzean ikaslea gai izango da:

- Listening: Esaldi eta enuntziatu laburren mezu nagusia ulertzea.
- Speaking: Esaldiak eta esapideak erabiltzea, pertsonak eta gertaerak deskribatzeko.
- Writing: Testu errazak idaztea; adibidez, gutun pertsonal bat, norbaiti eskerrak emateko.
- Reading: Testu laburrak ulertzea; liburuxketan, menuetan eta ordutegietan informazioa aurkitzea.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGÍA

Prestakuntza-plataforma birtualeko autoprestakuntzako online ikastaroa, teoria eta praktika uztartzen dituen. Edukiak tutoretza aktiboarekin indartuko dira eta baita taldekako elkarrizketa birtualeko 8 saiorekin (saio bakoitzeko 30 minutu). Mintzarena eta entzumenari eman zaio garrantzia programa diseinatzeko orduan eta, hain zuzen ere, aipatu gaitasunen inguruan oinarritzen dira ikastaroko edukiak. Ikastaroak 24 ikasgai ditu eta ikasgai bakoitza hurrengo 8 ataletan antolatuta dago: **“Situation”**: benetako egoera baten bideoa ikasgaiko abiapuntua izango da, pertsonaien elkarrizketak ikasi eta esamoldeak erabiltzeko gai izango da ikaslea. **“Study”**: aipatu egoerako esaldiak grabatu eta ikasiko dira beste egoera batzuetan erabiltzeko, hain zuzen ere, Intonation ariketaren bidez (esaldia grabatu eta jatorrizko hitzunen esaldiarekin alderatu ahoskera eta intonazio ingeles perfektua lortu harte). **“Dictation”**: hasierako elkarrizketako esaldiak idatzi eta diktaketak egin hizkuntzaren ulermena ebaluatzeko, zuzenketa automatikoaren bidez. **“Roleplay”**: hasierako egoerako aktoreak imitatu pertsonai baten rola hartuta, elkarrizketa zatia grabatu eta entzun benetako egoera izango balitz bezala. **“Grammar”**: ikasgai bakoitzean egitura gramatikal bat edo funtzio komunikatibo bat ikasiko du ikasleak. **“Writing”**: teoria sendotu idatzizko jarduerekin akats ortografikak egin gabe, ikasgai bakoitzeko egitura gramatikalak praktikan jartzen eta hiztegi berria bereganatzeko. **“New words”**: ikasgaiko hitz berriak ingelesetik gaztelaniarako itzulpenarekin. Ingeleseko hitz berri bakoitzeko ikasleak Intonation ariketa egingo du ahoskera lantzeko. **“Speaking”**: ikasgaiko ezagutzak ebaluatuko dira hasierako elkarrizketan ikusitako esaldiak hitzultzen eta grabatzen.

Ikasgai bakoitzak azalpen bideo bat dauka eta, bertan, tutore birtualak gramatikari buruzko atalaren argibideak emango ditu. Bestalde, tutoreek mezuak bidaliko dituzte, ostiralero, eduki gehigarriarekin ikaslea animatzeko asmoarekin hizkuntzaren prestakuntzan.

PROGRAMA

1. Unitatea. To have aditza, baiezkoetan
2. Unitatea. To have aditza, ezezkoetan eta galderetan
3. Unitatea. Some eta any
4. Unitatea. There is – There are
5. Unitatea. Kantitate-adberbioak – much, many...
6. Unitatea. Adjetibo posesiboak
7. Unitatea. Adjetibo eta izenordain erakusleak
8. Unitatea. Genitivo saxoia – my father’s car eta whose
9. Unitatea. Izenordain posesiboak

LOWER INTERMEDIATE

10. Unitatea. Osagarri-izenordainak.
11. Unitatea. Adjetibo kalifikatzaileak
12. Unitatea. Nola adierazi adina
13. Unitatea. Present Continuous
14. Unitatea. Present Continuous versus Simple Present
15. Unitatea. Simple Present eta Present Continuous geroaldian
16. Unitatea. Geroaldia will erabiliz
17. Unitatea. Shall eskaintzeko eta iradokitzeko
18. Unitatea. Eskatzea, will eta would erabiliz
19. Unitatea. Eskaintzea– Do you want ...?
20. Unitatea. Iradokitzea– Do you want to ...?
21. unitatea. Nork bere burua zerbait egiteko eskaintzea – Do you want me to ...?
22. unitatea. Eskaintzei eta iradokizunei erantzunak ematea
23. unitatea. Geroaldia, going to erabiliz
24. unitatea. Geroaldia: I will fly – I'm going to fly – I'm flying

EBALUAZIOA

Ebaluaketaren helburua: Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.

Etengabeko ebaluazioa egingo da eta ikasgai bakoitzeko aurrerapenak follow-up deritzan sistemaren bidez ikusiko du ikasleak modu grafikoa. Etengabeko ebaluazioa gainditzeko ikasgai amaierako test laburrak (gramatikari buruzko erantzun anitzeko hamar galdera) gainditu behar dira, eta baita ikasgai bakoitzeko jardueren %70.

Aprobetxamendu-probak bi zati ditu:

- Bukaerako test itxurako proba bat izango da, online egin beharrekoa; 40 galdera eta 3 erantzun posible galderako, eta idazlan bat (gehienez 150 hitz) irakasleak zuzenduko duena.
- Taldekako elkarrizketa birtualeko saioak, irakasle batek ebaluatuko dituenak. Talde bakoitzean 6 pertsona arituko dira hizketan.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze-inkesta, on-line

ZIURTAGIRIA

Aprobetxamendu-egiaztagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- Aprobetxamendu-proba gainditzea: bukaerako test proban, gutxienez, 30 galdera zuzen erantzutea, eta idazlana: zuzenketa gramatikala (ortografia, sintaxia eta lexikoa), konplexutasuna eta zehaztasuna.
- Ikasgai birtualak: gutxienez, 3 eginak izatea eta azkena gainditzea (ikastaroan ikasitakoa ebaluatuko da, eta baita, komunikazio gaitasuna eta ikaslearen parte-hartzea ere).

IVAPek igorriko ditu ziurtagiriak Zerbitzu zuzendaritzetara edo antzekoetara.

PREZIOA

120€

OHARRAK

Erreklamazioetarako: ikastaroa bukatzen denetik hurrengo 3 hilabeteko epean

Laguntza behar izanez gero jarri ELZrekin harremanetan:

- 902 024 386 ó 934 091 396
- support@abaenglish.com